

ZENBAIT GAZTEREN ERITZIAK

Aurkezpena

Aldizkari honetan, gure inguruetakoko erlijio-giza-kultura mailako berriak jaso, aztertu eta gogoetak eskaintzeko ahaleginak egiten dihardugu. Egin-eginean ere, honelako aldizkari batek, ziztu bizizko abiadan aurrera doan gizarte honetan, berriak jasote hutsa alde batera utzi eta gogoetei lekua egin behar diolako.

Hori dela eta, gazteen eritziei buruz, hots, Bilbo handi honetako Santutxu-Txurdinagako gazteen artean oraintsu eginiko inkesta batetan jasoten diren erantzunei buruz gure auzoan zabaldu den liburuska baten berri eman nahi dizuet.

Hala ere, ez da nire asmoa, nere kabuz liburuska horren nondik norakoak astintzen hastea, hurbiletik ezagutzen baititut zeregin horretan, lana asmorik ederrenak bultzatuta burutu dutelarik, aritu direnak. Argi azaldu zituzten beraiek hasieratik gogoetan izan zituzten asmoak, liburuska horren aurkezpena Santutxuko auzoan egin zutenean:

«Liburuskan bertan aditzera ematen dugun bezala, lan hau egitera bultzatu gintuen helburua, taldean, gure hurbileko ingurumariari (gure semealaben adiskide ta eskolako lagunei)

buruz genuen ezagutzaz aparte, auzategiko gazteei buruz ezer gutxi genekiela ikustea izan zen. Ahalik eta gazte gehienengana hurbiltzeko biderik egokiena ikastetxeen bidez egitea iruditu zitzaigun, nahiz eta horrela ezin harremanetan jarri 18 urtetik gora gazte-multzoarekin. Hauek, bestalde, beste problematika batzutan murgildurik dabilta, hots, lan bila, unibertsitateko karreretako eragozpenen artean, euren kontura bizitzeko baliabideak lortu ezinean etabarretan.

«Gure asmoak, bada, inkesta baten bidez, guk, handi-handika gazteen problematika deitzen dugunari buruzko erizpide nagusiak lortzea izan zen, gero, auzategiari dagokionean, guraso eta hezitzaileen artean problematika hori aztertzeko. Badakigu, bai, inkestan beste zenbait puntu ere erabil zitezkeela, esaterako, Euskara, Herri-kontzientzia eta hari horretako beste gai batzu, baina, guztiori, beste helburu batzu gogoan hartuz bestelako era batetan egituratutako inkesta berezi batetan egiteko zerbait dela uste dugu. Oso garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zaigu zuokin, guztiokin, emaitzak aztertu eta, bide batez, nola edota zeintzu bidetatik eman ahal diegun erantzuna inkestan agertzen diren arazo eta beharrezkoen ezaugarriak aztertzea».

Nire asmoa ere, berdintsua duzue. Inkesta horretan jasoten diren gazteen eritziak jaso eta zuei eskeini hausnarketa-bide izan ditzazuen. Egin-eginean ere, geroa, hainbatetan, bederen, gazteen esku izango denez, oso garrantzi handiko zera dugulako gazteak zer nolako bideak hartzen ari diren kontutan hartzea.

Sarrera


Laburkiro izan bada ere, gaiaren aurkezpena egin ondoren, jo dezagun, buru-belarri, inkestaren barneko erraietara nondik norakoak zehazkiro jaso eta hausnarketa-biderako datuak eskuartearen izateko. Lehen eta behin honako ezaugarri hauek azpimarratuko nituzke:

1) *Helburuak*: a) Gazteen ingurumaria ahalik eta hoberen ezagutzea; b) Auzoko gazteek bizi ohi duten «familiako giroaz»

jabetzea; c) Zeintzu diren auzategiko gazteek astitarteetan burutzen dituzten iharduketan berri jakitea eta d) Gazteen problematikara hurbiltzea.

2) *Inkestatzaileak*: Aipaturiko inkesta zein emaitzak jasoten dituen liburuska «Euskal Herriko Kristau Komunitate Herritarrak» deituetako kide diren guraso talde batek Santutxuko gazteengan eragina duten arazoei buruzko ikerketa egiteko arduraz burutuak izan dira. Dena den, izan dute, baita ere, soziologo talde baten laguntza galderak prestatzerakoan zein interpretazio lana egiterakoan.

3) *Inkestatuak*: BBB, UBI, LH eta IEE mailetan ikasten ari diren 14-18 urtetako gazteak. Guztira 1.025 gazte: 521 emakumezko eta 504 gizonezko. Inkesta, bestalde, Santutxu-Txurdinagan kokaturiko 7 ikastetxetan eginga izan da. Hori dela eta, ez ditu barru hartzen Santutxun bizi diren arren ikasketak beste nonbaiten egiten dituztenak; era berean, erantzuleen arteko zenbait ez dira elkarren alboan dauden Santutxu-Txurdinaga auzategietakoak (Santutxukoak: 511 [%49,9],



Txurdinagakoak: 140 [%13,7] bertako gazteen ikaskideak baino; hain zuzen, beste nonbaitekoak; hauek ere multzo handia (374: %36,4) osotzen dute.

4) *Mugapenak*: Honelako lan bat burutzean zein lortutako datuen emaitzak aztertzerakoan zenbait mugapen hartu behar izaten dira kontutan, azaleko itxurak egia biribil gisa ez hartzeko edota, itandu ez direlako, jaso ez diren beste eragingarri batzu kanpo geratu direlako. Horrela aitortzen dute zintzotasun osoz egileak jarraiko hau diotenean:

«Errealitateari buruzko edozein ikerketak bezala eta gehiago, agian, metodo soziologikoa erabili izan den aldetik, zenbait mugapen ditu.

Lehen mugapena, guri geure dagokiguna, hots, estadistikazko datu batzuri ematen diogun interpretazioa edota datu horiei buruz egiten dugun balorazioa.

Bigarren mugapena, lortu nahi izan ditugun helburuetan beraietan datza. Inkesta soziologiko hau egitea erabaki genuenok erantzunak ahalik eta objektiboak izatea nahi genuen gure gazteek bizi duten errealitatea abiaburutzat hartuz lan egin eta konpromezua burutu ahal izateko.

Hirugarren mugapena, beraren eraginkortasuna da. Balio ote du ezertarako ahalegin guzti honek? Zer esanik ez, badu balio etikoa, gazteak zer-nolako ikuspuntuak dituzten jakinerazten digun adinean, baina, mugapena aldaketan parte hartu behar duten eragileak zeintzu diren edota nola aritu behar duten ez esatean datza.

Hori «a posteriori» burutzeko lana dugu, guztiok, batez ere gazteek, inkestan isladatzen diren arazoei irtenbideak bilatzen elkarren arteko lankidetzan arituz».

5) *Metodologia*: Zentro bakoitzean aurkeztutako inkestak 180 izan dira eta honela banatu dira: Ikasmaila bakoitzeko 45

pertsonari 4 ikasmaitan, hau da, 180 inkesta, baina guztiau zentro bakoitzak izan duen pertsonen arabera, hots, zentro batzu inkesta gutxiago bete dituzte ikasmaita bakoitzeko ikasle gutxiago izan dutelako. Bete ondoren baliogarriztat jo diren inkestak 1.025 izan dira.

Inkestaren ondorioak

Aldizkari honetako irakurleoi, batez ere alor hau zaigu garrantzitsuena, gorago aipatu dugun bezala, emaitzak aurrean ditugula aurkituko baikara hausnarketa egin ondoren eztabaidatzeko gertu.

Hemen alde batera utziko ditut, itxura batetan honelako lan bat asko janzten badute ere, aipaturiko liburuska horretan ageri diren zenbakizko kuadro politak inkestatzaileek egiten duten interpretazio-azterketa hitzez hitz jasoz. Hona hemen, bada, ondorioen laburpena:

«FAMILI GIROA»

1a Orokorrean famili giroa ontzat ematen da famili giroaren balorazioari dagozkion erantzun positiboak elkarbilduz, beraietan erantzunen %70tik gora barnesartzen baitira.

Edozein gairi buruz elkarrizketatzen dira agerian eta gai konkretuei buruz hitz egiterakoan izaten diren ezberdintasunak, normalean, guraso eta seme-alaben artekoak izan ohi dira.

%22,9k elkarrizketa hau inoizka irekia eta beste %22,7k gaien arabera irekia izan ohi dela uste dute.

2a. Inkestatuen %50 inguruk familian elkarrekin argi eta garbi mintzatzen direla diote, %5 bakarrik direlarik elkarrizketa oso zaila gertatzen dela diotenak. Ezadostasunaren ziorik nagusienak, edozein familiaren barruan sortzen den erizpideen ezberdintasun arruntan edota belaunaldien arteko ezberdintasunetan, berezkoa denez, planteatutakoak dira (%45

inguruk ezberdintasunak zio honegatik direla diote).

Elkarrizketa edo hizketa amaitzerakoan izaten den sentzazioa, gehienetan, adostasunera heldu denekoa izan ohi da (%38,5), nahiz eta %28,5ek bakoitzak bere erizpidean jarraitzen duela esan.

%11,5ek ez direla inoiz ados jartzen azaltzen du.

3a.%91k nahikoa dela familiako gainerako kideek ohiz egiten duteneri buruzko informazioa uste du, nahiz eta erabaki garrantzitsurik hartu behar denean, familiako kide bakoitzari egiten zaion kontsultari dagokionean portzentaia hau %56ra jaitsi. %37,5ek hau sarriago gertatzen dela adierazten du.

4a.Guraso eta seme-alaben artean gertatzen den belaunaldien arteko ezberdintasunak somatzeak ez dirudi iturburutzat burugogorkeriazko edota norkeriazko joerak izatearen sentzaziorik duenik (guraso eta seme-alaben aldetik %6k baino gutxiago); kanpoko giroa dela esan daiteke. Kultur maila (%11) eta balioen eskala (%19) ere ezberdintasun hauetan eragin oso nabaria izaten dute elementuetarikoak dira.

5a.Inkestan emaniko erantzunak kontutan hartuz, familian garrantziaren arabera eztabaida gehien sortzen duten gaiak jarraikook dira

1. TAULA

	KOPURUA	PORTZENTAIA
HEZIKETA	266	%26,1
BALIO MORALAK (askatasuna, sexualitatea, etab.)	136	%13,4
DIRUA	112	%11,0
ASTI ARTEAK	97	9,5
LANA	96	9,4
POLITIKA	51	5,0
ERLIJIOA	23	2,3

1. Taulan ikus daitekeenez, eztabaidak sortu ohi dituzten gaiak bi mailatan banandu ditzakegu: alde batean, lana, asti tarte, dirua, orokorrean, maila material gisa definitu ditzakegunak daude eta kontsumitzeko gaitasunarekin eta erarekin loturik dabilta eta %30 ingururaino heltzen dira guztira eta, bestetik, balorazio, etika edo ideologia mailekin lotura estuagoak dituen goragoko mailako edo materialtasun gutxiagoko joera legoke erantzunen erdi ingurua jasoten duena.

ASTI-TARTEA

1a. Honakook dira, asti-tartean burutzen diren iharduera nagusiak, garrantziaren arabera:

2. TAULA

	KOPURUA	PORTZENTAIA
KIROLA	322	%32,5
ADISKIDEEKIN IRTETZEA	229	%23,1
MUSIKA ENTZUTEA	76	% 7,7
TELEBISTA IKUSTEA	63	% 6,4
IRAKURTZEA	54	% 5,5

2. Taulan ikus daitekeenez, asti-tartea batez ere kirola egiten (%32) eta adiskideekin harremanetan (%23,1) erabili ohi da. Adimenarekin edo kulturarekin zerikusi estuagoa duten iharduketek, hala, irakurtzea (5%), hizkuntzak ikastea (%1) etab., ikus daitekeenez, oso distantzia handira ageri zaizkigu.

2a. Azpimarratu egin behar da asti-tartean egiten diren iharduketa gehienak (%53,8) Bilbon egiten direla; jarraian, hainbat gutxiago auzategian (%28,8); eta Bilbotik kanpo egiten direnak %11,9 baino ez direla.

3a. Jeneralean asti-tarteko iharduketak adiskideekin (%74,3) egiten dituzte, portzentzaietan hainbat gutxitzen direla bakarka (%13,2) edo familian (%7,2) egiten direnak.

4a. Azpimarratzekoa da, baita ere, albiste-iturri nagusiena telebista (%75,1) izatea; hurrengo irratia (%11) ageri dira, ondoren egunkariak edo aldizkariak (%8,6) jarraitzen dietelarik.

5a. Auzategian ihardunean diren talde eta elkarteak ezagutzeari dagokionean, baietzak eta ezetzak ia berdintsu, hurrenez hurren %40 eta %45 dira. Gehiago direla EZAGUTZEN EZ DITUZTENAK azpimarratu behar da, horrek egon daudenetan parte hartzea oso zaila egiten duelarik.

6a. Une honetan auzategian egon ez eta eduki nahi diren iharduketa edo lokalei buruzko erantzunak oso sakabanatuak izan badira ere, honako hauek eduki nahiko litezkete:


- KULTUR ETXEA
- GAZTETXEA EDO GAZTEENTZAKO LOKALA
- BIBLIOTEKA
- POLIKIROLDEGIA (hau Santutxu edo Txurdinagatik kanpo bizi direnen erantzuna)
- ZINETOKIA
- DANTZATOKIA

7a. Auzategian dagoen talde edo elkarte motaren batetan partehartzeari dagokionean, %56,5ek ez duela parte hartzen, %24,8k egiten duela eta %15,1ek inoiz egin duela esaten dutela nabarmendu behar da.

Kezkagarriagoak dira, hainbatetan, ea halakoren batetan partehartzeko asmoei buruz jasotako erantzunak: borobil-borobila da erantzuna: EZETZA (%51,9), BAIETZA %21eko den artean.

GAZTEEN PROBLEMATIKA

1a. Sexu-harremanei buruzko erizpideei dagokienean: %50k edozein egoeratan eduki daitezkeela biak ados egonez



gero uste du: %42,7k norbait maite denean eta %5ek ezkondata gero.

2a. Zeintzu droga jotzen dituzten arriskugarriztat galderari erantzutean: %80,5ek ZIZTATZEA, jarraian ALKOHOLA (%12,5) eta PORROAK (%5,4k) erantzun dute.

Badirudi ez diotela garrantzirik ematen porroei erantzundako inkestetan, behinik behin, nahiz eta ZIZTAKETARA eraman ohi duen bideko atea izan.

Esanguratsua da, era berean, zein gutxik (%1,5ek) jotzen duten tabakoa droga arriskutsutzat ikustea.

3a. Gehiengo osoak (%97,8k) ez direla INOIZ ziztatuko erantzuten du; eta egun bereziren batetan halakorik hartuko lukeen galdetzerakoan, ALKOHOLA hartzeari dagokionean % 82,6 erantzun nabarmentzen dira, hurrengo mailan tabakoa (% 12,2) eta PORROAK (%5)

ageri direla. Ziztatzea gaitzeste hori honetan ere ageri da, %0,20 bakarrik ageri delako prest egun berezi batetan ziztatzeko.

Ea zein egoeratan hartuko lukeen DROGA, behar izanez gero ARRISKUTSUENA ere bai, galdetzerakoan INOIZ ERE EZ erantzuten dute garbiro %76,7k eta arazo astunen bat ahazteko %7,8k; ez du garrantzi handiri adiskide guztiek hartzen dutelako erantzuten dutenen erantzunek (%1,1) edo neska-mutilen arteko harremanetarako (%1,6) diotenak; hobekiago sentitzeko diotenen erantzunek (%2,8) eragin handiago dute.

4a. Jarraiko arazo hauek

- 1 INTSUMISIOA
- 2 EKOLOGIA
- 3 POLITIKA
- 4 ERLIJIOA

sortzen dien interesaren arabera honako erantzunak jaso dira, berauetariko bakoitzean daukan garrantzien arabera aurkezten direla:

1. INTSUMISIOA: Honako interes maila: TXIKIA (%28,8), NAHIKOA (%26,1), HANDIA (%24,1) eta BAT ERE EZ (%12,8).
2. EKOLOGIA: Honako interes maila: HANDIA (%44,0), NAHIKOA (%38,3), TXIKIA (%13,1), BAT ERE EZ (%3,3).
3. POLITIKA: Honako interes maila: BAT ERE EZ (%44,2), TXIKIA (%27,6), NAHIKOA (%15,9), HANDIA (%8,8).
4. ERLIJIOA: Honako interes maila: TXIKIA (%41,6), BAT ERE EZ (%30), NAHIKOA (%17,4), HANDIA (%6,0).

Laburbilduz erantzun bakoitzaren garrantzia hurrengo era honetan geratzen da:

3. TAULA

	GARRANTZIA	KOPURUA	PORTZENTAIA
INTSUMISIOA	TXIKIA	295	%28,8
EKOLOGIA	HANDIA	451	%44,0
POLITIKA	BAT ERE EZ	453	%44,2
ERLIJIOA	TXIKIA	426	%41,6

Orokorrean, portzentaien batuketa eginez, ardura nagusiena ekologiarri buruzkoa dela esan daiteke. Distantzia batetara ageri da intsumisioa eta politika eta erlijioari balio txikia ematen zaie. Dena dela, azpimarratzekoa da politikaz baino interes handiagoa erakusten dutela erlijioaz.

5a. «Zuen gurasoekin gonbaratuz nola ikusten duzu zure etorkizuna?» galderari dagokionean %55 baikor ageri dira. Alderantziz, %23k gurasoena baino txarragoa izango dela eta %21ek berdintsua uste dute.

6a. «Ondorengo hauetatik, zein da zuretzat garrantzitsuena?» galderari dagokionean:

- 1 DIRUA
- 2 OSASUNA
- 3 MAITASUNA
- 4 ADISKIDETASUNA
- 5 ELKARTASUNA
- 6 OSPEA

Sail bakoitzeko garrantziaren arabera honako hauek izan dira erantzunak:

1. DIRUA: NAHIKOA (%57,1), HANDIA (%28,2), TXIKIA (%12,2), BAT ERE EZ (%1,3)
2. OSASUNA: HANDIA (%85,2), NAHIKOA (%12,7), TXIKIA (%1,0) BAT ERE EZ (%1,0).
3. MAITASUNA: HANDIA (%70,6), NAHIKOA (%25,5), TXIKIA (%2,6), BAT ERE EZ (%1,0).

4. ADISKIDETASUNA: HANDIA (%83,0), NAHIKOA (%14,9), BAT ERE EZ (%1,0), TXIKIA (%0,2).
5. ELKARTASUNA: HANDIA (%48,2), NAHIKOA (%38,4), TXIKIA (%6,6), BAT ERE EZ (%3,1).
6. OSPEA: TXIKIA (%46,)), BAT ERE EZ (%27,1), NAHIKOA (%14,7), HANDIA (%7,8).

Laburbilduz erantzun bakoitzaren garrantzia honela geratzen da:

4. TAULA

	GARRANTZIA	KOPURUA	PORTZENTAIA
DIRUA	NAHIKOA	584	%57,1
OSASUNA	HANDIA	872	%85,2
MAITASUNA	HANDIA	722	%70,6
ADISKIDETASUNA	HANDIA	849	%83,0
ELKARTASUNA	HANDIA	492	%48,0
OSPEA	TXIKIA	471	%46,0

Orokorrean, osasuna, adiskidetasuna, maitasuna eta elkartasuna direla gazteentzat baliorik gogokoenak esan daiteke. Dirua erdibide batetan aurkitzen da, ospeari ematen dioten garrantzi txikia nabarmentzen delarik.

7a.«Zeintzu direla uste duzu, gaur egun, gure auzoko gaztediarengan eragin gehiena duten arazoak?» galderari dagokionean: Osozko gehiengoz DROGA (%66,9) dela diote; jarraian porroa (%15,7), alkohola (%7,0), Delikuentzia (%5,5), Irakaskuntza (%2,9), Ganberrotza eta Elkartasuna (%1,0) datoz eta, azkenik, zerbitzu militarra (%0,3) eta Gizartearen Presioa (%0,1).

8a.Arazo guzti hauei irtenbidea proposatzerakoan erantzun ezberdin ugari jaso da, halakoan artean garrantziaren araberako zerrendaketarik egin gabe, hauek nabarmentzen direla:

- DROGA LEGEZTATZEA
- DROGA DEBEKATZEA
- LANPOSTUAK SORTZEA
- POLIZIAREN JAGOTZA HANDIAGOA
- «GAMELUAK» HILTZEA
- ELKARTASUNA
- BIRGAIKUNTZA ZENTROAK
- GAZTEEI LAN EGITEKO AUKERA GEHIAGO EMATEA
- BORONDATEZKO SOLDADUTZA.

Ondorioak

Zer esanik ez, kristau zein giza heziketaz kezkatuta dihardugunoi hainbat zalantza eta galdera sortzen zaizkigu erraietan, inkesta honetan ageri diren erantzun batzuren aurrean, esaterako, gazteen albiste-iturri nagusiena telebista (%75,1) eta irratiak (%11) direla ikustean edota asti-tartean burutzen diren ihardueren artean, irakurtzea (%5) hain beheko mailan agertzean.

Era berean, nabari-nabaria da, Santutxu Bilboko auzategirik biziena dela esaten bada ere, gazteek ekintza kolektiboei (politika, erlijio, elkarteetan partehartze etabarri) buruz agertzen duten interes eza. Agian, norberakerian oinarritutako gizartea egiten ari gara. Dena den, bestalde, garrantzi handia ematen diote adiskidetasunari (%83) eta elkartasunari (%48,04).

Kezkagarria da, baita ere, izpirituzko gaien alorrari hain garrantzi txikia ematen zaion artean, diruari eta antzekoei ematen zaien lehentasuna ikustea. Materialismo hutsezko gizarterantz abiadura bizian doan gizarte modernoaren islada edo dugu, nonbait.

Edonola ere, inkesta nahiko zabala izanik eta erantzunak ugariak, ez legoke gaizki zenbateraino diren eritzi berdinekoak neskak eta mutilak, esaterako, sexuari, erlijioari, adiskidetasunari eta abarri buruz aztertzea, ez baita berdin norberari barne-barnetik dagokionari (sexualitateari) edo norberaren ikuspegi teorikoan dagoenari (nesken kasuan, intsumismoari) buruzko

galderei erantzutea. Ezin dira halako erantzunak zaku berean sartu edota maila berean neurtu.

Hori dela eta, liburuskan erantzun orokorrak jasoten badira ere, alor batzuri dagokienean zehaztasun-falta ikusten dut. Hala ere, egia esan, ezin halako liburuska batetan inkestatik atera daitezkeen ondorio guztiak bildu. Kontutan hartu behar da, bestalde, egileen asmo nagusia, arazoak plazaratu, eztabaidarako gaia eskaini eta adineko zein gazteen artean konponbide bilatzeko nahia sortzen izan dela.

Era berean, inkestatzailcek beraiek ere zenbait balorazio eskaintzen dizkigunez, dauden eran utziko ditut besterik erantsi gabe, aurkeztu dizkiguten datuak, guztiontzat hausnarketa-bide izango direlakoan.

Beraz, gaur egungo gazteen informazio-biderik nagusiena telebista izanik eta gizartea bera ere, hainbatetan, hiritartua dugunez, beste zenbait tokitako gazteek ere, aldeak alde, antzerako eritziak izango dituztela pentsa dezakegu. Hala den neurrian, argibide eta lagungarri izango dugu inkesta hau, gure inguruko gazteen eritziak hobekiago ezagutzeko.

Patxi Uribarren

INKESTA

ADINA: _____ BIZILEKUA: _____ IKASMAILA: _____ MUTILA: _____
 NESKA: _____ IKAST. PUBLIKOA: _____ IKAST. PRIBATUA: _____

Famili giroa

1.- Zer eritzi duzu orokorrean zure familian bizi den giroari buruz?

Oso ona	1
Ona	2
Nahiko ona	3
Eskasa	4
Oso eskasa	5
ED/EE	0

- 2.- Esan al daiteke orokorrean, zure familian edozer gaietaz lasai hitz egiten dela?
- | | |
|-----------------------|---|
| Bai..... | 1 |
| Ez | 2 |
| Batzutan | 3 |
| Gaiaren arabera | 4 |
| ED/EE | 0 |
- 3.- Gai zehatz bati buruz hitz egitean ustu duzu:
- | | |
|--|---|
| Elkarren arteko eritzietan ezberdintasuna asko sortzen dela | 1 |
| Ezberdintasunak normalean, guraso eta semeen artean sortzen direla | 2 |
| Ez dagoela ezberdintasun nabarmenik | 3 |
| Besterik | 4 |
| ED/EE | 0 |
- 5.- Zer deritzozu zure familiako besteek egiten dutenari buruz duzun informazioari?
- | | |
|------------------------|---|
| Nahiko dela | 1 |
| Gutxiegia dela | 2 |
| Ezer ez dakizula | 3 |
| ED/EE | 0 |
- 6.- Zure familiako norbaitek erabaki garrantzitsuren bat hartu behar duenean, normalean, besteei eritzia eskatzen die?
- | | |
|----------------|---|
| Bai | 1 |
| Ez | 2 |
| Batzutan | 3 |
| ED/EE | 0 |
- 7.- Gaur egun guraso eta semeen artean ematen diren ezberdintasunak, zerk eraginda dira gehienetan?
- | | |
|--|---|
| Kultura maila ezberdinak | 1 |
| Baloreen neurri ezberdinak | 2 |
| Gurasoen aldetiko amore eman ezinak | 3 |
| Seme-alaben aldetiko amore eman ezinak | 4 |

Gurasoen aldetiko norberekeriak	5
Seme-alaben aldetiko norberekeriak	6
Bizitzaren egokitu zaien giro ezberdinak	7
Besterik	8
ED/EE	0
8.- Zure familian eztabaida bat baino gehiago sortzen duen gaia da:	
Hezkuntza	1
Dirua	2
Erljioa	3
Politika	4
Baloreak (askatasuna, sexualitatea,...)	5
Lana	6
Denbora librea	7
Besterik	8
ED/EE	9

Denbora librea

9.- Zeintzu dira zure denbora libreteko ekintza nabarmenenak?

10.- Zure denbora libreteko ekintzak garatzen dira, batez ere:
 Auzoan bertan

Auzoan bertan	1
Bilbon	2
Bilbotik kanpo	3
Besterik	4
ED/EF	0

11.- Denbora libreko ekintzak normalean burutzen dituzu:
 Indibidualki

Indibidualki	1
Famili artean	2
Lagunekin	3
Beste talde batzuekin	4
Besterik	5
ED/EE	0

12.- Zein da funtsean zure informazio iturri nagusiena?

Telebista	1
Irratia	2
Egunkariak-aldizkariak	3
Besterik	4
Ed/EE	0

13.- Ezagutzen al dituzu auzoan gaur egun funtzionatzen duten Talde eta Elkarateak?

Bai	1
Ez	2
ED/EE	0

14.- Gaur egun auzoan ez dagoen ekintza motaren bat iradokiko al zenuke? Zein?

.....

15.- Auzoan dagoen etariko Talde edo Elkarteren batean parte hartzen al duzu?

Bai	1
Zeinetan?	
Ez	2
Inoiz parte hartu duzu?	3
Bai	3-1
Zeinetan?	
Ez	3-2
ED/EE	0

16.- Sartzen al da zure egitasmoetan talde horietakoren batetan parte hartzea?

Bai	1
Ez	2
ED/EE	0

Gazte problematika

17.- Zein eritzi duzu sexu harremanetaz?

Biak ados egonez gero, edozein egoeratan eman daitezke	1
Norbait maite denean bakarrik	2
Ezkondu eta gero bakarrik	3
Semeak izateko bakarrik	4
ED/EE	0

18.- Era hauetako drogetatik zeintzu deritzozu arriskutsuak?

Alkohola	1
Tabakoa	2
Porroak	3
Injektatzea	4

19.- Horietako zeintzu ez zenituzke inoiz hartuko?

.....	
.....	
.....	

20.- Horietako zeintzu hartuko zenituzke okasi bereziren batetan?

.....	
.....	
.....	

21.- Honelako zein egoeratan ez litzaizuke ardurarik droga hartzea, gogorrenak izanik ere:

Lagun guztiak hartzen dutenean	1
Neska-mutilekin harremanak izateko	2
Arazo gogorren batetatik ihes egiteko	3
Hobeto egoteko besterik ez	4
Besterik	5
.....	
Inoiz ez	6
ED/EE	0

ZENBAIT GAZTEREN ERITZIAK

22.- Ze neurritan arduratzen zaitu

	ASKO	NAHIKO	GUTXI	EZER EZ	ED/EE
	1	2	3	4	5
1. Intsumisioak					
2. Ekologiak					
3. Politikak					
4. Erlijioak					
5. Solidaritatea					
6. Fama					

23.- Orokorrean, zuen gurasoekin gonbaratuz, nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Zuen gurasoena baino hobea	1
Zuen gurasoena bezalakoa	2
Zuen gurasoena baino okerragoa	3

24.- Ondorengo hauetatik zein da zuretzat garrantzitsuena?

	ASKO	NAHIKO	GUTXI	EZER EZ	ED/EE
	1	2	3	4	5
1. Dirua					
2. Osasuna					
3. Maitasuna					
4. Adiskidetasuna					

25.- Zeintzu direla uste duzu, gaur egun, gure auzoko gazteriarengan eragin gehiena duten arazoak?

.....
.....

26.- Zeintzu soluzio emango zenituzke?

.....
.....